

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Berezibar Ibabe

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1930-2019)*

Aurkibidea



Biografia



Meatzerreka auzoko Salturri baserrian jaio zen 1930ean. Aita Salturrikoa bertakoa zen eta ama Aramaioko Eguzkierripa auzoko Ibabe baserrikoa. Gerra zela eta, bederatzi urterekin hasi zen eskolan, Arrasateko mertzedarietan. Gero, eskola nazionalen ere ibili zen eta San Viator eskolan egin zituen azken lau eskola urteak. 14 urterekin etxean geratu zen. Elgoibarko San Pedrotik etorritako Frantziska Ziorragarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan dituzte. Kanpazarko harrobian pare bat urtez lan egin eta gero, AMATen egin zituen beste hamar urte. Gero Zerrajeran jardun zuen zaintzaile modura, 58 urtera arte.

Zintak

ARR-075

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-06-19
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Etxean lana, eskolara berandu

- **Erref:** ARR-075/004
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxean lana zegoenean eskolara berandu joaten zen. Aitak eskola "tunanteena" zela esaten zien. Bere aitonak ez zekien idazten ezta irakurtzen.

Transkripzioa

- Etxien lana euenien, eskolara faten ziñan, edo...?
- Bai, beranduau edo, zelabaittera bai.

-Ta baiña normalien ez zebeñ lan eitten?
-Aittek esaten uskun "Eskolie tunantiena dok e, tunantiena eskolie!"
-Berak ez eukan?
-Apu bat baauken bai. Ez eukena zan aittejaune. Ez ekixen leiruten, ez ekixen eskribiruten, ez akixen firmetan.
-Aittajaunak, e? Jontxo. Aittejauna be hangua Salturrikua izango zan.
-Hemengue zan bai.

2. Koba bat dauka etxeak barnean

- **Erref:** ARR-075/005
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:07:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Bere sortetxea Arrasateko lehenengo etxea izan zela dio. Koba bat dauka etxeak. Barandiaran bertan izandakoa dela dio. Harek esan omen zuen lehenengo koban jendea bizi zela eta gero koba hori handituta egin zutela etxea.

Transkripzioa

-Esan dozu larehun urte apellido batekin egon dala etxe hau?
-Hirurehun-laurehun bat.
-Eta etxia zaharra da hori baiño, edo...?
-E?
-Etxiau zaharra da hori baiño? Zenbat urte dako etxiak, badakitzu?
-Hau esaten daue, edifizie, Mondrauen lelegokua.
-Izan zala?
-Esan.
-Bai, bai, bai, bai. Jontxo. Mondrauen kalien lehenengo etxia hau izan zala, e?
-Honek etxionek dauko kuebíe. Kueba. Ta hamen egon zan, behin baiño gehixauten egon zan, e...
-Barandiaran igual.
-Barandiaran, ... zela auken be izena... Barandiaranek zela auken izena?
-E...
-Jode, min puntan dauket eta... Parra dutso. Ataungua.
-Bai, bai, bai, bai.
-Harek esan zauen, behin baiño gehixautan egon zan ta, hor kueban jentíe bizi lelego, ta gero hau anpliazíñue zala!
-A, hori kobíori zer dau hamen etxe inguruen?
-Etxe barruen.
-A, etxe barruen daukotzue?
-Bai.
-Aiba! Hori ez nekixen ník hori. Oseake etxe barruen dauen koba horretan jentía lelego bizi izan zala ta gero hau in eueilla?
-Bai. Esan. Hori e, oin e... zenbat urte izengo da. Mille ta píku urte iguel, e! Ez dakít zenbat urte! Hori historiadore, zueík jakingo zue.
-Bai e, ník...
-Mondraueko artxibuetan beittu ta... aiuntamíentuek jakingo dau hori, e!

-Jakingo dau, baten batek behintzat jakingo dau.
-Hori da.
-Orduan Barandiaranek esaten eben hamen etxe aurrian daukotzuein koba horretan jentia bizi zala ta gero ein eueilla etxiok.
-Hau bakarrik ez e, beste danetan e, edifizieuk ez auen esistiruten, ba, nunbaitten bizi izen biher izen auen jentiek. Ba, animalixen defensara edo.
-Baiña hori milla urte baiño gehixauko kontua da, e.
-Bai.
-Bastante gehixau.
-Bai.
-Jontxo, jontxo.

3. Joxe Miguel Barandiaranen indusketak etxean

- **Erref:** ARR-075/006
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:07:22. **Bukatu:** 00:10:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Barandiaranek indusketak egin zituen baserrian. Bera begira egoten zen, umea zen eta. Behin galdetu omen zion Barandiarani mugarriak, haitzetan egindako gurutzeak, denborarekin zergatik handitzen ziren. Gastatu egiten zirelako, erantzun omen zion.

4. Behiak eta ahuntzak zituzten; garia ereiten zuten

- **Erref:** ARR-075/009
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>13-14 urtera arte egon zen eskolan. Gero, etxean lan egiten zuen. Behiak eta ahuntzak zituzten. Behiak uztarrian erabiltzen zituzten. Gari-jotzeari buruz berba egiten du. Aurrerapen teknologikoak etorritakoan utzi zieten garia ereiteari.</p>

5. Ogia egiten zuten etxean, integrala ere bai

- **Erref:** ARR-075/010
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:18:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Astean behin ogia eta artoa egiten zituzten. Ogia integrala ere egiten zuten; latza izaten omen zen.</p>

6. Kalera esnea eta barazkiak saltzera jaisten ziren

- **Erref:** ARR-075/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:18:39. **Bukatu:** 00:20:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Kalera saltzera jaisten ziren; esnea, barazkiak... Oinez egiten zituzten gora eta beherakoak, marmitak eskuetan hartuta.

7. Soroetako lanak eskuz egiten zituzten, behien laguntzarekin

- **Erref:** ARR-075/012
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:20:34. **Bukatu:** 00:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Baratzean, behiak jezten, soroan... denean jarduten zuen. Eskuzko lana izaten zen soroetakoa, behiak uztarrian hartuta.</p>

8. Bi fronteren artean zegoen baserria

- **Erref:** ARR-075/015
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:27:23. **Bukatu:** 00:29:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoiak, gehiago gogoratzen du entzundakoa, bizi izandakoa baino. Etxea bi fronteren artean zegoen. Leiho eta balkoiak koltxoiekin itxita zituzten. Abereak barruan izaten zituzten. Baserritik bota eta Bilboraino joan behar izan zuten.

9. Etxeko gauzak lapurtu zizkieten

- **Erref:** ARR-075/016
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:29:43. **Bukatu:** 00:32:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Gerra sasoian etxetik aterarazi zituzten, eta abere eta guzti joan ziren. Behi bakarrarekin itzuli ziren etxera. Etxe barruko guztia lapurtu zieten kanpoan zirela. Lagun batek eman zion altoa aitari Bilbotik etxera bidean.

10. Kobetan ibiltzen ziren jolasean

- **Erref:** ARR-075/017
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:32:27. **Bukatu:** 00:35:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Igande arratsaldetan batzen ziren auzoko umeak jolasera. Kobetan sartzen ziren, lastoari su emanda, bidea argituz. Mutikoak ibiltzen ziren horretan. Kartetan ere egiten zuten, baita dirua jokatu ere.

11. Argindarra eta ura beti izan zuten

- **Erref:** ARR-075/018
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:35:50. **Bukatu:** 00:38:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Auzoko argindarra zuten, uraren indarraz sortutakoa. Karburoa eta kandela erabiltzen zituzten udan, ur gutxi zetorrenetan. 1935ean ipini zuten sukalderra ura. Aurretik askan eta iturrian izaten zuten ura.

12. Kaletarrek baino gose gutxiago izan zuten gerraostean

- **Erref:** ARR-075/019
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:41:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Baba gorriak egunero jaten zituzten aste barruan; eta, igandeetan,

garbantzuak okela zati batekin. Klean baino gose gutxiago izan zuten baserrian. Baratzetik lapurtu izan zizkieten barazkiak. Gerragatik etxetik irtenarazi zituztenean, ondo jan zuten.</p>

13. Erromeria izaten zuten Kanpazarren

- **Erref:** ARR-075/020
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:41:36. **Bukatu:** 00:44:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Kanpazarren erromeria egiten zuten. San Inazio egunean ospakizun berezia egiten zuten. Soinua, gramola, filarmonika izaten dituzte orain ere. Inguruko auzoetara joaten ziren jaietan. Elgoibarko azokan ezagutu zuen emaztea.

14. Auzotarrak batu egiten ziren auzoko kontuak konpontzeko

- **Erref:** ARR-075/022
- **Iraupena:** 0:04:56. **Hasi:** 00:47:04. **Bukatu:** 00:52:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzolanean batzen ziren abereak galduz gero laguntza izateko. Kofradiak jabetzak izaten zituen eta irabaziekin elizak konpontzeaz arduratzen ziren, besteak beste; elizak beretzat hartu zituen kofradiaren jabetzak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com